

«Hizkuntza jasoagoa erabiltzean eragin zuen Larramendik»

URTZI REGUERO
FILOLOGOA

Manuel Larramendik idazle nafarrengan izandako eragina ikertzeko Manuel Larramendi ikerketa saria eskuratu du //3

Udal sailetako batzordeetan parte hartu ahaliko dute billabonatarrek

Kide titularrez gain, interesa agertzen duten herritarrek botorik ez, baina, hitza izango dute aurrerantzean //5

Altunak laugarrenez eta Jakak lehen aldiz jokatu du finalerdia

Lizartarrak Ezkurdia izango du aurkari larunbatean eta igandean Lasoren aurkakoa izango du amezketarrak //7



ENERITZ MAIZ

«Deskonektatzea ematen dizu Bedaiok, eta zerbaiten parte sentitzen zara»

JULEN AIESTARAN WEB DISEINATZAILEA

Duela hamabi urte 'www.bedaio.com' web orria sortu zuen bedaiotarrak, eta orain berri egin du; Bedaio ezagutzera eman eta Interneten bere lekua izan zezan sortu zuen, eta sare sozialen bidez informazioa ere zabaltzen du //4

Zu zeu zara zure influencer bakarra.



Audi A4 Avant berria.

Autowag Tolosa
Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 Kw (136 CV) S tronic. CO2 isurketak (g/km): 137-151 (NEDC: 104-113). Kontsumoa (l/100 km): 5,2-5,8.



Bost saiotik hiru mamitu dituzte, 'Euskara eta Feminismoa: bidegurutzea elkargune' zikloko entzuleek; Saioa Iraolak eskaini du azkena, eta mugimendu feministak hizkuntzaren auzian duen erronkari jarri dio fokua.

Erresistentziatik erronketara

Nola heldu garen honaino

Itzea Urkizu Arsuaga

Memoria ariketak eta erronkak uztartuz, euskararen eta Euskal Herriko mugimendu feministaren arteko zubiez aritu zen, herenegun, Saioa Iraola. *Euskara eta Feminismoa: bidegurutzea elkargune* hitzaldi zikloko hirugarren saioa gidatu zuen Bilgune Feministako eta Emagineko kideak, eta, galdera batekin zabaldu zuen, *Euskara eta emakumeak, genealogia feminista bat* hitzaldia: «Nola iritsi gara eztabaida eta gogoeta hauek egitera?».

1970ko hamarkada hasierara joz, iparraldean kokatu zuen Euskal Herriko mugimendu feministaren sorrera, abortuaren bueltako borroketan. Ordea, genealogia feminista horretan, Euskal Herriaren historiako hainbat mugarri hizpide izan zituen, «honaino nola heldu garen» azaltzeko.

Horrela, hizpide izan zuen XV. mendea, eta Milia Lasturkoaren eresia: nola gizonak erail zuen, eta nola haren ahizpak eresia bat idatzi zion hiletarako, eraildako beste bi emakumeren izenak ere aipatuz. Hain justu, garai hartan debekatu zieten profazadoreei inprobisatzea, eta emakumeei eresiak abestea, «bazter nahasle» izateagatik. Hain justu, garai bereangertatu ziren sorgin-ehizak, eta ezarri modernizazioaren zutabeak, «egoteko eta izateko modu berri bat».

Bigarren mugarria Vicenta Mogen *Ipuin onak* liburuan ezarri zuen Iraolak; zehazki, liburuaren hitzaurrean. Euskaraz liburu bat



Ibarrako kultur etxeak hartu zuen, hitzaldi zikloko hirugarren saioa; Amezketan izango da hurrengoa. GALTZAUNDI

inprimatu zuen lehen emakumea izan zen, eta haurrentzako ipuinak itzuli zituen horretarako. Argitalpenaren helburua feminista ez izan arren, Mogelek argi utzi zuen bere posizioa hitzaurrean: «Aurre-ratu zuen, emakume batek liburu bat inprimitzeak zeresana piztuko zuela».

Literaturaren unibertsoetik irten gabe, baina ahozko adierazpideetara pasatuz, arrosnabarrak ere hizpide izan zituen Saioa Iraolak: «Egungo bertso kantuen aurrekoak ziren, arto zuritzean aritzen zirenek kantatuak; ia beti, emakumeak. Haiei esker mantendu dira, gaur arte, arrosnabarrak. Besteak beste, orriandik ere abesten den *Leitzen mutil fiñik ez*».

Hiru aipamenekin josi zuen XX. mendeko genealogia, eta Emakume Abertzaleen Batzarekin hasi zen; haren arrakala izan zirenekin. «Sufragismoarekin batera,

1906an, lehen aldiz argitaratu zuten, *Aberri* egunkarian, emakume-entzako artikulu bat, haiek politikagintzara gonbidatuz». Horrela, garaiko abertzaletasuna fede katolikoari oso lotua izaki, emakumeak «jeltzaleen zerbitzurako lotuta» geratu ziren: «Emakumea eta ama».

Joera horren aurka beren ideiak mahai gaineratu zituztenak ere izan ziren, ordea. Julia Fernandez Zabaleta iruindarra, bata, eta Miren Etxabe Aldai zarauztarra, bestea. «Biek ere, ez zuten nahikotzat nazionalismoak emakumeei eskaintzen zien papera, etxean, baserrian, edo hizkuntza zaintzen». Horrela, Fernandezek emakumeak ekonomikoki burujabe izateko proposamena egin zuen hitzaldi batean, eta Etxabek antzezlan bat aurkeztu zuen, 1930ean, Donostiako Novedades antzokian: *Zorionaren iturria gizonak non du?*. «Garai hartan boom bat izan zen».

Memoria «erresistentzia ariketa bat izan daiteke» eta, ariketa horretan, ezin maistren lana aipatu gabe utzi: «Berez kontzientzia feministarik izan gabe, plaza hartu zuten, eta etxeko espazio pribatua espazio politiko bilakatu».

KONTZIENTZIA ALA BEHARRA?

Urrunagoko urte eta mendeetatik pasatu, eta 1980-1990 hamarkadetakoa feministei begira jarri zen Iraola, haiek euskararekin izandako harremanaz emandako zenbait gako errebasatuz: «Orduan, taldea sortzea zuten lehentasun, egoera soziolinguistikoa ez baitzen gaurkoa. Ekoizpen ideologikoa ere, nagusiki gaztelarazkoa zen, eta lan handia hartzen zuten itzultzen. Euskaraz aritzea hautu politikoa zen, eta mugimenduko euskaltzaileek zuten horren ardura; gaur egun, mugimenduak berak du. gainera, mugimendu feminista ez zen beste batzuk baino erdaldunagoa izan, eta duela gutxira arte hizkuntzarena baliatu izan da ideologia eta nazio ikuspegi desberdinen arteko tala nabarmentzeko».

Aurrekari horiek guztiak kontuan hartuta, Euskal Herriko mugimendu feminista hizkuntzaren auzia erdigunean jartzera iritsi da, eta etorkizuneko erronken artean nagusienetakoa da. Bide horretan, Iraolak ezinbestekotzat jo zuen euskaraz teorizatzen jarraitzea, ahizpen artean eztabaidatzea, eta hizkuntza politika neoliberalak salatzea, «gaur egun euskara ikastea klase kontua ere badelako».

Lanketa kolektibo eta indibidualera deitu zituen feministak, aurrera begira, eta galdera batekin hasietako saioa beste galdera batekin amaitu zuen: «Zenbateraino da mugimendu baten ardura, parte hartzaile guztien hizkuntza praktika?».

Iritzia

Jone Amonarriz

Tolosaldeko Asanblada Feminista

Juani deitzen dira nire bi amonak. Bata Adunan jaioa. Bestea Berrobin. Euskaldun eta emakume. Biak familia xumeetan haziak. Beti izan ditut hurbil, baina azken hamar bat urteotan ezagutu ditut sakonago haien jatorriak, bizitzak, borrokak eta istorioak, heldutasunak zabaldu didan jakin-minari tiraka, eta beraiek transmisiorako izan duten ardurari esker.

Aitaren amak ez zuen euskararik jaso etxean, baina frankismo bete-betean ikasi zuen, Berrobiko kalean. Itzultzaile lanak ere egin omen zituen, erdaraz ez zekiten ikasleen eta irakasle erdaldunen artean, hamaiketakorako sagar batzuen truk —gaur egun, xuxurlatzailearen figura fin-fin beteko luke—. Baldintzarik txarrenetan ere, eutsi egin zion ikasitako euskarari.

Amaren ama familia euskaldun batean jaio zen. Baserrian. Behin ere ez da ongi moldatu gaztelaniaz hitz egiteko, baina garairik zailetan ere, tinko eutsi dio euskararekiko konpromisoari. Tolosan 1967an herri ekimenez sortu zuten Ikastolan, lehen belaunaldiko ikasle izan zen ama, ondoren izebak, gero hiru ahizpok, eta orain ilobak.

Urteetan euskararen gordailu izan diren milaka emakume «ikusezin» horietako bi dira Juani eta Juani. Iratxe Retolaza EHUKo irakasleak Elbira Zipitria maistrari buruzko erreportaje batean dioena pluralera ekarrita: «Piztu zitu(zt)en su batzuk, jakin gabe su horiek pizten ari z(ir)ela» (*Berria*, 2018).

Zein beharrezkoa memoria, oraina ulertzeko eta etorkizunearagiteko. Saioa Iraola Urkiolak *Euskara eta emakumeak, genealogia/begirada feminista bat* hitzaldian emandako informazio, azalpen eta hausnarketa guztiak motxilan, fokua orainean jarrita, amaitu nahiko nuke artikulu hau esker bereziak emanez Bilgune Feministari, euskara erdigunean jartzeko egindako hautu politikorengatik eta hautu hori praktika-ramateko lantzen ari den metodo eta egiteko modu berri eta eredugarriengatik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Jon Miranda

Londresen hiru hilabeteko egonaldi bat egiten ari da da Urtzi Reguero Ugarte (Zizurkil, 1988). Bertan garatuko du Larramendi Kultur Bazkunak emandako bekaren lehen partea.

Pozik ikerketa saria jaso ondoren?

Bai, noski, nola ez. Aukera ematen dit, urtebetean, lehendik buzuan neukan proiektu bat gauzatzeko. Ikertzaile batek horrelako laguntzak gustura jasotzen ditu.

Manuel Larramendik eta bere obrak XVIII. mendeko idazle nafarren izandako eragina aztertuko duzu ikerlanean. Ez zara hutsetik abiatzen, ordea.

Ez. 2017an aurkeztu nuen doktore tesia eta bertan Larramendi aurreko goi-nafarreraz idatzitako testu guztiak aztertu nituen eta nahiz eta tesian ez sartu, Larramendi ondorengo testu batzuei ere erreparatu nien. Konturatu nintzen hor bazegoela ezberdintasun bat; susmoa neukan aldaketa horretan Larramendik eragina izango zuela. Aztertu gabe zegoen gauza bat zen eta tesian ezin izan nuenez hori garatu, orain ikerlanarekin heldu ahal izango diot gaiari.

Zergatik sumatzen da etena, 1750. urteurrenaren bueltan?

Euskararen historia aztertzen denean kontuan hartzen dira garai ezberdinak. Euskaralari eta euskal filologoen artean onartzen da 1750. urtean eten bat dagoela euskararen bilakabidean, batez ere euskara idatziaren bilakabidean, batez ere Larramendik sortutako giroaren ondorioz. Kontua da euskalki batzuetan oraindik ez dela aztertu aldaketa hori zertan den. Goi-nafarreraren kasua da hori.

Larramendiren arrastoa sumatzen duzu eragin horretan?

Bai. XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera erabiltzen den goi-nafarrera hori jantziagoa da, gaztelaniazko mailegu gutxiago daude eta testuetan sintaxi konplexuagoa agertzen da. Adibidez, orain Mikelestorenaren autoreak aztertzen nabil eta sumatzen da, lehenagoko testuek zeuzkaten ezaugarri dialektal batzuk desagertzen direla, hizkera jantziagoa erakutsi nahian edo.


Mikelestorenarekin batera, zein beste autoreren lanak aztertuko dituzu?

Mikelestorenaren bera aztertuko dut batetik. Lesakako apaiz bat izan zen eta liburu erlijioso bat idatzi eta argitaratu zuen. Mike-

«Larramendiren eragina ez zen hitz berriak erabiltzera mugatu»

URTZI REGUERO
FILOLOGOA

Manuel Larramendik eta bere obrak XVIII. mendeko bigarren partean idazle nafarren izandako eragina ikertzeko III. Manuel Larramendi ikerketa saria eskuratu du; urbete izango du egitasmoa burutzeko



BELEN GALVAN

lestorenari buruz Mendibururekin harremana izan zuela esaten da baina eraginaz orain arte ez da ezer esan. Lizarraga Elkanoaren testuak ere aztertu ditut. Azken honi dagokionez esaten da, lexikoan badauzkala Larramendiren neologismoak, baina hortik harago ez dago ezer gehiago esanda. Beste dotrina anonimo bat badut esku artean, tesia- ren garaian aurkitu nuen eta aztertze-ko daukat; anonimoa da, baina susmoa daukat ez ote dagoen Sagastibeltza izeneko idazle bat atzean. Leitzako euskara da dotrina horretan erabiltzen dena eta XVIII. mendearen bukaerakoa da. Aipatutako lauak, nik uste, korpus interesgarria

osatzen dutela aztertze-ko lehenengo garai horretan, Larramendiren eragina zenbatekoa izan zen Nafarroan.

Zertan sumatzen da Larramendiren eragina testu horietan?

Mikelestorenaren beste adibide bat jarriko dut. Larramendik bere hiztegiari sartu zituen euskarazko hitzak, bakoitza zein euskalkitakoa den esan gabe. Adibidez, gaztelaniazko *cama* esateko gutxienez bi modu daude euskaraz: ohe eta ohatze. Nafarroan ohatze erabiltzen da gehiago, baina Mikelestorenaren testuetan biak agertzen ditu. Edo taktika esaten zaiona erabiltzen du. *Irakurtzen* edo *leitzen*,

esaten du adibidez. Bere euskalkiko forma erabili beharrean beti sartzen du sinonimo gisa beste forma bat. Asmo esateko, Nafarroako testu zaharrak begiratu gero, *propositu* erabiltzen dela ikusten dugu. Mikelestorenaren esaten du *propositu* edo *asmo*. Beharbada ordura arte gutxiago erabiltzen zen testu idatzietan eta hemen erabili egiten du. Dotrinetan oso ohikoa den *dibindade* hitza Mikelestorenaren eza- batu egiten du eta erabiltzen du euskaraz jatorragoa dirudien beste forma bat: *jainkotasun*. Atzizki gehiago erabiltzen dira, atzizkiekin sortutako hitz berri gehiago daude. Oraindik ondoriorik ez daukat, baina momentuz hori sumatu dut, beste euskalkietako hitz gehiago azaltzen direla edo maileguei eman nahi zaiela itxura euskaldunagoa. *Umildade*, *umiltasun* bihurtzen da, adibidez. Atzizkiak izugarri ugaritzen dira, Mikelestorenaren kasuan, behintzat.

1690ean Andoainen sortu zen, 1766an hil zen Loiolan.

Garai horretako idazleen artean hainbestekoa al zen Larramendiren itzala?

Esango nuke baietz. Kontuan hartu behar da bereak direla euskaraz argitaratu ziren lehenengo gramatika eta lehenengo hiztegia. Nolabait Larramendik esan zuen, «euskaraz modu jasoan idatzi daiteke, idatzi nahi duzue? Bada hemen daukazue gramatika, hemen daukazue hiztegia, badaukazue oinarri bat euskaraz idazten hasteko, hasi zaitezte, beraz». Bere inguruan sortu zen nolabaiteko idazle jantzi talde bat, modu batera edo bestera aplikatu zuena Larramendik esandakoa. Ez zuzenean berak esandakoa jarraituz, baina bai modu kontziente batean beste proposamen batzuk egiten. Hor ditugu Kardaberaz hernaniarra,

Mendiburu oiartzuarra, Ubillos amasarra, Agirre asteasuarra...

Berandura arte pentsatu izan da eragina mugatu izan dela berak asmatutako hitzak erabiltzera. Baina, ikusi dena da eta nik orain nafarrerarekin demostratu nahi dudana da, ez dela bakarrik hitz berriak erabiltzea, baizik eta hizkuntzaren kontzientzia handiagoa izatea eta hizkuntza jaso erabiltzeko saiakera handiagoa egitea. Hor sartzen da beste euskalkietako hitzak erabiltzea, egitura landuagoak erabiltzea, askotan gaztelaniaren pisua duen itzulpena bada, kontzientzia izan eta euskaraz naturalagoa den hitz hurrenkera aurkeztea... eragina ez da bakarrik mugatzen neologismoetara. Hor atzean dagoen hizkuntza jasotzeko saiakera da erakutsi nahi dudana.

Ikerlanarekin, idazle hauek zuten hizkuntza jasotzeko saiakera da erakutsi nahi dudana

Argitaratuko al dagero zuk egindako ikerlana?

Aipatu didatenez, lana entregatu ondoren ikusi beharko dute, batetik kalitate nahikoa ote dautan saria irabazi eta azkeneko ordainketa egiteko. Eta begiratu beharko dute lana argitaratzeak merezi duen edo ez. Azken batean, bazkunaren esku geratuko da erabakia.

Ireki behar du zientziak atea eta bazkunaren saiakera honek laguntzen du ate hori zabaltzen

Nola baloratzen duzu unibertsitatetik kanpo ikerketarako beste erakundeek egiten duten ahalegina?

Uste dut beharrezkoa dela. Egokiena litzateke administrazio publikoek aukera ematea ikertu nahi duten guztiei. Horregatik horrelako ekimenek laguntzen dute administrazio publikoaren babesik ez duten ikerlariak ere ikertu dezaten. Bazkunak egiten duen ekimena oso beharrezkoa iruditzen zait. Batetik maila zientifikoko ikerketak egiteko, baina bestetik modu dibulgatzaile batean zientzia hori jendearen eskuetara iristeko, ez dadin geratu akademian, unibertsitatearen esku. Ireki behar du zientziak atea eta Larramendi Bazkunaren saiakera honek laguntzen du ate hori zabaltzen.

Eneritz Maiz Etxarri Bedaio

Julen Aiestaran «harro» dago bedaiotarra izateaz. Duela 12 urte webgunea sortu zuen Bedaio mundu zabalean ezagutarazteko, eta orain berriro egin du.

Bedaiotarra zarela esan eta jendeak ezagutzen du?

Ez. Eta askotan gertatu zait. Donostian lan egiten dut eta, agian, Donostian komentatzean jende gehiagok ezagutzen du, hemen Tolosan esandakoan baino.

Duela 12 urte webgune bat egin zenuen. Nolatan edo nondik sortu zenuen?

Niri multimedia saltsa hauek betidanik gustatu izan zaizkit. Ikus-entzunezko ikasketak Andoainen hasi nituenean webguneen munduan sartu nintzen. Gero ikastaro bat egin nuen, eta pentsatu nuen zer hobeto Bedaio ezagutzera emateko webgune bat egitea baino.

Zure ideia izan zen?

Bai, niregandik atera zen. Behar bat ere ikusi nuen. Internet pil-pilean zegoen eta guztiek zuten webgunea. Herri txikiak ere bai, eta pentsatu nuen Bedaiok ere behar zuela berea.

Auzotarrekin komentatu zenuen?

Hasi nire kaxa hasi nintzen, baina behin ikusi nuenean forma hartzen ari zela auzotarrei komentatu nien, eta ideia gustatu zitzaien. Informazioa eskatu nien, eta bildu egin nuen leku ezberdinetatik. Baina herritarrei laguntza ere eskatu nien. Informazio ezberdina eman zidaten, eta nik pixka bat laburtu, sailkatu eta antolatu egin nuen.

Zein zen helburua?

Bedaio ezagutzera ematea gehien bat. Ez da pasieran gertatzen den herri bat. Bedaiora joan egin behar da apropos. Bedaio bizirik dago, eta beti gaude bizia eman nahian. Interneten ezagutzera emateko, eta bere lekua edukitzeko behar zen.

Web orri bat ezin du edozeinek sortu.

«Bedaio ere behar zuen bere webgunea»



E. MAIZ

JULEN AIESTARAN WEB DISEINATZAILEA

la internetik gabe bizi badira ere, duela 12 urte sortu zuen 'www.bedaio.com' web orria Julen Aiestaran bedaiotarrak; orain, berriro egin du.

Garai haietan agian ez, baina gaur egun ez pentsa! Lehen erreminta zailagoak zeuden, baina orain, badaude erreminta errazak sortu ahal izateko.

Geroztik, mundu hori albo batera utzia izan duzu?

Beti joan eta etorrian ibili naiz. Irudia ikasi nuen, baina gero gizarte integrazioa egin nuen, eta orain horretan egiten dut lan. Tarte horretan soinua ere ikasi nuen, eta beti erakartzen nau mundu horrek.

Hamabi urte pasa dira, eta berriro berriro duzu web orria.

Webguneak berak eskatu du berriro. Garai hartako tresnak zaharkituta geratu dira, eta zerbitzariak berak esan digu ez duela

onartzen. Berritzeko ideia baren, baina denbora falta; eta azkenean behartuta egin dugu.

Zenbat denbora behar izan duzu guztia berritzen?

Aspaldian utzita daukat mundu hau, eta berritzen baino denbora gehiago pasa dut ni eguneratzen eta erreminta berriak ikasten. Lanik handiena hori izan da, hasi eta egitea azkarra izan da, baina aurretik egin behar izan dut lana. Joan den udaberrian bertan behar geratu zen eta presioa nuen, udan egin dut lan gehiena.

Zuk antolatu duzu guztia?

Laguntza eskatu dut. Gero, atal bakoitzak eskatzen duen argazkia bilatu dut sare sozialetan, bai-menak eskatu ditut,... Autoexi-

gentzia handikoa naiz, eta buelta asko ematen diet gauzei. Egiten dut eta hurrengo egunean berriz desegiten dut.

Sare sozialetan ere badituzue.

Ni nago horren atzean, baina laguntza dut. Oso gertuko pertsona batek mundu horretan egiten du lan. Ni sare sozialetan ez naiz oso aditua, eta ez nago oso egunean. Facebook daukagu eta orain Instagram kontua ireki dugu. Garai batean webgunea zen bizirik zegoena, baina gaur egun informazio puntu moduan ikusten dut. Albisteak sare sozialetan ikusten ditut, argazkiak... Geroz eta gazte gehiago daude Bedaion, eta gazteak Instagramera joaten dira.

'www.bedaio.com' da webgunea. Sartuz gero, zer dago?

Hasteko sarreratxo bat Bedaio zer den ez dakienak jakiteko. Lotura batzuk daude sare sozialetara eta blogera. Eta atal ezberdinak ditu Bedaioren inguruko informazioa helarazteko: mendi ibilbideak, nola iritsi, pertsonaia

ospetsuak, urtean zehar egiten diren ekitaldiak...

Urtean zehar gauza asko antolatzen dira Bedaion.

Bai. Gauza xumeak, baina beti saiatzen gara bi hilabete behin behintzat zer bait egiten.

Zer du Bedaiok?

Zaila da azaltzen. Ni betidanik Bedaion bizi izan naiz, Donostian bizitzen egon nintzen urte batez, eta nik Bedaio behar nuen. Asteburuetan etortzen nintzen eta desatzen egoten nintzen. Deskonektatze eta la-saitasun puntua ematen dizu. Eta zerbaiten parte sentitzen gara. Udalaren aldetik laguntza txiki bat badugu, baina jendeak, guk, egiten dugu dena.

Nolakoa da Bedaion bizitzea?

Gai honi helduz, oraindik, ez daukagu banda zabalik. Iristen zaigu zerbait, eta baserri bakoitzaren kasua ezberdina da, baina 10 mega kontratatuta izan arren, 3 iristen zaizkit. Eta nire ondoko etxera ez da iristen. Honelako desabantailak baditu, eta askotan ahaztuta geratzen gara. Esaterako, banda zabala jarri da inguruko herri txiki eta baserrietan, baina Bedaioren kasua berezia da. Tolosako zati gara eta ez ditugu herri bateko laguntzak jasotzen. Ahaztuta geratzen gara erakunde aldetik. Nire kabuz ibili naiz sistema ezberdinak begiratu eta probatzen baina...

Kokalekua da arazoa?

Nik uste dagoeneko baliabideak badaudela Bedaiora banda zabala iristeko. Oraindik zain gaude. Wimax sistema alternatiboa izan dugu; ez zen koheteak botatzekoa, baina lege bat zela eta ekainean kendu egin ziguten.

Eta nola bizi duzue egoera?

Etsipenarekin. Aldundiari ere egin diogu eskaera, baina ez gara herri txikien laguntzetan sartzen. Mugikorren kobertura erabiltzeko eskatzen digute, baina hori ere ez dugu; leku konkretuetan bakarrik. Ezin dut dei bat egin nire etxetik mozketarik gabe.

TOLOSA

ONENETAN ONENA
ERDI-PREZIOAREN
ERDI-PREZIOAN

Eta orain...

LEHENGO
HILA DOAN!

19'9€
/hil



euskaltel

Udal batzordeak publikoak eta herritarrentzat irekiak izango dira

Amasa-Villabonako udalbatzak aho batez hartu du erabakia; Erresidentzietako langileekiko elkartasunezko mozioaren bozketan EAJk eta PSE-EEk ez dute parte hartu

Jon Miranda Amasa-Villabona

Asteartean egindako ohiko osoko bilkuran udal gobernuak egindako proposamena aho batez onartu zuen udalbatzak: hemendik aurrera herritarrek udal sailtako batzorde ofizialetan parte hartu ahal izango dute. Onartutako ebazpenaren arabera, udaleko batzorde informatzaileetan, kide titularrez gain, interesa duten herritarrek parte hartu ahal izango dute, horretarako alkatearen aurretiazko baimena jasota. Herritarrek hitza izango dute batzordeetan baina botorik ez. Gainera, bileretan aipatzen den informazioaren inguruko erreserba gorde beharko dute, bereziki, erabakia hartzeke dauden gaietan. Batzordearen gehiengo absolutuak erabakitzen duenean, sekretuak izan daitezke eztabaida eta bozketa, intimitatea, ohorea, haurren babesa edo segurtasun arrazoiak direla medio.

Udal gobernuaren iritziz erabaki hau aurrera ematea urrats garrantzitsua da, «gobernutik bultzatu eta zabaldu nahi den gardentasun alorrean». Udaleko erabaki nagusiak hartzen diren foroetan herritarrek parte hartze-ko aukera izatea «oso positiboa» da. Hurrengo udal batzordeetako deialdiak eta gai zerrendak udaleko webgunean egongo dira ikusgai. Hain zuzen, galde erreguen txandan, udalbatzan alderdiek duten proportzionaltasuna batzordeetan errespetatu dadin eskatu zuten, beste behin, EAJkoek. Eztabaida prozesuan da gaia, eta jeltzaleek «baikortasunez» ikusi dute ematen ari den prozesua.

EZTABAIDA MOZIOAREKIN

Udalbatzak ez die modu bateratuan erantzun Villabonako Santiago egoitzako langileen eskariei. Eskakizun horiek zeintzuk ziren ikusita, EH Bilduren udal taldeak mozioa erregistratu zuen urriaren 24an, aste honetan ospatu den ohiko osoko bilkuran eztabaida zedin. Eguna iritsita, ordea, EAJ eta PSE-EEko zinegotziek mozioaren bozketan parte ez hartzea erabaki zuten. Bilkuraren gai



Hainbat herritar gerturatu ziren astearte iluntzean udalbatzak eginiko ohiko osoko bilkurara. J.M.

ordenarekin batera, mozioaren testua atxikita jaso ez izana eman zuten argudiotzat eztabaidan parte ez hartzeko.

Komunikazio postua beteko duen langilea plantilla organikoko kide izatea zalantzan jarri du EAJk

Osoko bilkura hasi aurretik udal idazkariak onartu zuen errua, barkamenak eskatu zituen akats bat tarteko udal taldeei ez zitzaielako informazioa atxikitu bilkurarako deialdian. Hala ere, argitu nahi izan zuen idazkari gisa bera ez dagoela, legez, informazio hori bidaltzera behartuta eta gai ordena jaso ondoren talde politikoei dagokiela bertan ageri diren gaiak prestatzea. «Eztabaidatzeko puntuekin batera espedienteak atxikitzen bazaizkizue, horretarako baliabide teknologikoak dauzkagulako da, batere kostatzen ez zaigulako eta alderdi politikoei kortesiagatik». EAJko eta PSE-EEko zinegotziek zalantzan jarri zuten idazkariaren hitza eta hori horrela dela ziurtatzeko txosten bat idatzi dezan eskatu zioten.

EAJko Patxi Agirre zinegotziak, gaiaren garrantzia ikusita, «seriotasunez» aztertu beharra zegoela azpimarratu zuen, «zaharren egoitzako erabiltzaileei eta langi-

leei eragiten dielako». Bozeramaileen batzordean adierazpen instituzional bat egiteko proposamena ere luzatu zuen.

EH Bilduko Xabat Laborde alkateordeak erantzun zien oposizio alderdiei: «Santiago egoitzako langileak urriaren 14an etorri ziren udaletxera euren eskakizunekin. Ordutik hamar egun baino gehiago pasa dira eta ez duzue ezer egin. Guk mozioa urriaren 24an egin genuen publiko, hedabideetan ere irakurri zitekeen; bilkura hasi aurretik arratsaldean bidali dizuegu testua eta eten bat egiteko prest ere agertu gara, mozioa azter dezazuen. Gai garrantzitsua dela diozue baina gero urratsik ez duzue ematen».

Honenbestez, mozioa eztabaidatzeko garaian, EAJko lau zine-

gotziek eta PSE-EEko bakarrak, ez zuten bozketan parte hartu. EH Bilduren aldeko zazpi botoekin onartu zen mozioa eta beraz, Amasa-Villabonako Udalak elkartasuna agertu die lan baldintza eta zaintza duinen alde borrokan ari diren Gipuzkoako egoitzetako eta eguneko zentroetako langile guztiei, modu berezian, Villabonako Santio egoitzan lan egiten dutenei. Lan gatazka hau epe laburrean konpontzeko arduratzena eta helburu hori lortzeko beharrezko urratsak ematera premiatu du udalak Gipuzkoako Foru Aldundia eta greba egiten ari diren egoitzetan eman gabe geratu diren zerbitzuen zati proportzionala egoiliarren senideei itzultzea eskatu diote Amasa-Villabonako Udaletik.

KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

Asteartean ospatutako ohiko osoko bilkuran udal plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendaren hirugarren aldagetari hasierako onarpena eman zitzaion, EH Bildu eta PSE-EEren aldeko botoekin eta EAJren kontrako lau bozkekin. Amasa-Villabonako Udalak komunikazio arduradun lanpostua sortzea erabaki du.

Alderdi jeltzaleak hainbat zalantza agertu zituen lanpostu honen sorrerarekin eta zalantzan jarri zuen 5.000 biztanleko herri batean beharrezkoa ote den egunero komunikazio arduradun bat aritzea. Langile hori udal plantilla organikoan sartzearekin agertu zuen Agirre jeltzaleak kezkarik handiena, ekonomikoki jasangarria ote den duda egin zuen eta kontu-hartzailetzaren txostenak eskatu zituen. Beste hainbat galdera ere bota zituen: «Zein funtzio izango ditu komunikazio arduradun horrek? Zeinen esanetara arituko da? Gardentasun eta kontsentsuaren izenean, alderdien artean gai hau adostea eskatzen diogu EH Bilduri».

Labordek nabarmendu zuen, hain zuzen, gardentasunean sakondu nahi dutelako hartu dutela komunikazio arduradun lanpostua sortzeko erabakia, «kanpo enpresa bat kontratatzea baino merkeago aterako zaio udalari eta oposizio bidez erabakiko da zeinek beteko duen postua». Adostasun falta, EAJ eta EH Bilduren arteko eredu talkari egotzi zion alkateordeak.



Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



**DELTECO GIPUZKOA
BASKET - B THE TRAVEL
BRAND MALLOCA
partida ikusteko**

Azaroak 3, 12:00etan,
Jose Antonio Gasca pabiloian.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

zozketak

Atarikideentzat
disco bat daukagu



**50. Tolosako
Abesbatza
lehiaketako
DISKO KAXA
berezia**

Grafikagintzan aldarrikapen asko alboratu izana leporatu dio ELAk LABi

Akordiorako oinarriak hitzartu ditu LABek Adegirekin; ELAk, ordea, «gatazka desaktibatzea» egotzi dio LABi

Erredakzioa

Urte hasieratik negoziaketetan aritu ondoren, hitzarmena berri-tzea adostu du aste honetan LABek Gipuzkoako grafikagin-tzan. ELAk, ordea, ez du akor-dioa babestu. Sektorean sindika-tuek mahai gainean jarritako «al-darrikapen asko alboratu» eta Adegipatzen eskaintak «hobekuntza txikiak onartzea eta gatazka desaktibatzea» aur-pagiratu dizkio LABi.

ELAren ustez, «proposamena oraindik ere murrizta» da hain-bat arrazoi medio: patronalak ABLEen eta lizentzien arloko lege- eta jurisprudentzia-egoki-tzapenak «bere proposamen gisa saltzen» jarraitzen duelako; 1,47 profilak sektore horretarako «gu-txienekoa» izan beharko lukeela-ko; igoyerak ez direlako nahikoak eta ELAk eta LABek azken bile-ran proposatutako KPI+ %2,75etik «urrun» jarraitzen du-telako; eta azkenik, lan-errefor-maren aurrean «erabat blindatu-ta ez dagoen hitzarmena» izaten jarraitzen duelako.

Era berean, ELAk patronalari gogorarazi nahi izan dizkio LABekin batera osatutako plata-forman bildu ziren eta kanpoan utzi diren beste puntu garrantzi-tsu batzuk, besteak beste, errele-bo kontratua. ELAren ustez, «ba-zegoen lorpen handiagoak lor-tzeko marjina».

Irati Saizar Artola

Klima aldaketa eta glaziarren atzeraldiaren inguruan hitzaldia eskainiko du Ibai Rico geografo eta glaziologo gasteiztarak, gaur 19:00etan, Berastegin. Era bere-an, *Patagonia incognita* doku-mentala proiektatuko du hitzal-diaren ostean. Izan ere, 2016an, Patagonian izan zen espedizio zientifiko bat egiten eta 20 minu-tuko film batean gorde dute emaitza.

Zer da zehazki hitzaldian kon-tatuko duzuna?

Glaziarrek zer diren eta nola fun-tzionatzen duten ikusiko dugu. Bestalde, klima aldaketarekin duten lotura aztertzea da asmoa. Adibide ezberdinen bidez, Piri-nioetan, Alaskan eta Patagonian dauden glaziarrek ikusiko ditu-gu, eta glaziarren atzeraldi ho-riek dituzten efektu eta inpak-tuak zeintzuk diren aztertuko dugu.

Zein egoeretan dago, gaur egun, klima aldaketa?

Ni saiatzen naiz klimaren alda-garritasun naturala ere azaltzen, baina, klima aldaketa artifiziala ari gara ikusten azken hamarka-detan. Orokorrean, eta zoritxa-rrez, ebidentzia oso nabarmenak ari gara ikusten eta egoera oso azkar ari da aldatzen.

Aldaketa artifiziala diozune-an, zeri buruz ari zara?

Giza jarduerekin lotuta dagoen klima aldaketa da. Gasen isurke-ten ondorioz negutegi efektua areagotzen ari da eta aldaketa nagusia tenperaturen igoera da. Azken finean, klimaren siste-man gu ari gara aldaketa eragi-ten eta horrek inpaktu ezberdi-nak ditu, adibidez, glaziarretan. Aldaketaren errudun nugu-sienagizakia da? 1950 ingurutik natur baliabide-en ustiaketa areagotu egin dugu. Geroz eta argiago geratzen ari da aldaketa hauek gurekin lotuta daudela.



ATARIA

«Nahiz eta orain isurketak geratu, atzeraka jarraituko dute glaziarrek»

IBAI RICO GEOGRAFOA ETA GLAZIOLOGOA

Berastegiko kultur astearen barruan, hitzaldia eskainiko du Ibai Ricok klima aldaketaren eta glaziarren atzeraldiaren inguruan, gaur, 19:00etan, erabilera anitzeko gelan.

Zer ondorio ekar ditzake?

Atmosferaren beroketa globala da, eta inpaktuak ere globalak dira, baina baita lokalak ere. Lau ondorio garrantzitsu aipa daitez-ke. Horietako bat, baliabide hi-drikoetan emango diren aldake-tak izan daitezke. Leku askotan, glaziarrek urtzean askatzen du-

ten ura oso garrantzitsua dute, adibidez, Alpeetako edo Himala-yako inguruetako komunitateetan, sasoi lehorrean, nekazaritza eta abeltzantzarako. Momentu batean, glaziarra desagertzen bada, baliabide gabe geratuko dira komunitate horiek.

Beste inpaktua itsasoaren

mailaren igoera da. Orain gutxi ateratu dituzte aurreikuspen be-rriak eta eszenatoki ezberdine-tan, baina ikus daiteke itsasoa-ren maila 50 zentimetrotatik metro batera arte igo daitekeela.

Zein dira beste bi inpaktuak?

Beste inpaktu bat arriskua izan daiteke: glaziarrek atzeratzean urezko laku batzuk sortzen dira, arrisku potentzialak eragiten di-tuzte, sekulako uholdeak sorra-raz ditzaketelako. Eta azkena, ondorio sozioekonomikoa izan daiteke. Alde batetik, turismoari begira, paisaia bat erakargarria izan daiteke glaziarrek dituela-ko, eta hauek desagertzen badi-ra, turismoari eragingo dio. Eta bestalde, elur kota geroz eta go-rago doa, gehienbat tenperatura igotzen ari delako, beraz, eski es-tazioei eragingo die.

Abiadura horretan, nola ikus-ten duzu egoera aurrera begi-ra?

Herrialde bakoitzaren adaptazio mailaren arabera baldintzatuko da. Garrantzitsua da neurketak egitea, etorkizuneko modeloak ezagutzeko. Baina aldaketa ema-ten ari da, eta glaziarren erantzun-ak jarraitu egingo du. Orintxe bertan, nahiz eta gure isurketak geratu, glaziarrek atzera egiten jarraituko dute.

Zer egin daiteke klima aldake-taren alde?

Garraio jasangarriaren eredu bat sustatu beharko litzateke, adibi-dez. Kontsumoan ere badugu egitekorik. Erosten ditugun pro-dukturek izugarritzko karbono az-tarna dute jatorriaren arabera, beraz, gertuko produktuak ero-siz asko murriztu daiteke isurke-ta. Energetikoki daukagun ere-dua ere aldatu egin beharko dugu, poliki-poliki. Apustu bat egin beharko genuke, bai gizarte moduan, bai indibidualki, hori aldatzeko; nahiz eta daukagun hazkunde paradigmarekin ez den erraza guztia horretara ego-kitzea.

Hilberriak eta urteurrenak



GARBIÑE SAGASTIBELTZA GABARAIN



*Urrutira joan zara
bihotzean gertu
lankide goxo, zintzo
inoiz ez mespretxu*

*eskuzabal ta umil
maiz zara agertu
Garbiñe izango zara
guretzat eredu*

Anoetako Herri Ikastolako eta Irurako Ikastolako lankideak.

ANOETA, 2019ko urriaren 31.



GARBIÑE SAGASTIBELTZA GABARAIN



*Euskararentzat emana Ikastolan ibili zara
euskaraz bizitzeko piztu diguzu harra
ahaleginez ahalegin, inoiz ez ikara
zurea da meritu, guretzat indarra*



Anoetako Herri Ikastolako eta Irurako Ikastolako irakasle, ikasle, guraso eta langileak.

ANOETA, 2019ko urriaren 31.

Helburu bera, bi abiapuntu

Lau eta Erdiko Txapelketaren finalerdiak iritsi dira. Jokin Altuna laugarren aldiz jarraian sailkatu da eta Erik Jaka, berriz, lehen aldiz. Finalean elkarren aurka jokatu nahi dute.

Imanol Garcia Landa

Lehen mailako Lau eta Erdiko Pilota Txapelketaren bi finalerdiak jokatu dira asteburuan. Larunbatean Erik Jaka lizartzarren txanda izango da. Joseba Ezkurdia izango du aurkari, Iruñeko Labrit pilotalekuan, 17:45ean hasiko den jaialdiaren bigarren partidari. Jokin Altuna amezketarrak igandean jokatu du, eta aurrean Unai Laso izango du. Bilboko Bizkaia frontoian jokatu dute, 17:00etan hasiko den jaialdiaren bigarren partidari.

Altuna III. arentzat laugarren finalerdia izango da jarraian, eta aurreko hiruetan finalerako sailkatu zen. «Niretzat garrantzi guztia du urtero hor borrokan ibiltzeak, finalerdian edo finalean, hor goran behintzat. Badakit hor goran ibiltzen banaiz, urte batzuetan ondo aterako zaidala beste batzuetan ez hain ondo, baina nire helburua hor ibiltzea da. Lortzen ari naiz, eta uste dut urtetik urtera pilotari hobeagoa naizela, hobeto aurkitzen dut nere burua, eta ea aurrean ere finalean sartzeko aukera dudan».

Jakaren lehen helburua final-laurdenetako ligaxkan sartzea zen: «Behin ligaxkan egonik, asmoa zen partida onak egitea, eta ahal dela garaipena lortzea, eta zortez hirutik bi partida irabazi ditut». Lehen aldiz jokatu du lehen mailako txapelketa bateko finalerdia: «Bigarren mailan txapelata bat edo beste irabazi behar izan ditut lehen mailako txapelketetan sartzeko, eta lehen mailan jokatu ditudanetan ez dut



Ligaxkan elkarren aurka jokatu zuten Erik Jakak eta Jokin Altunak. JOSU ARTUTXA

zorte gehiegirik izan, lesioak tarteke. Nik uste dut oraingo honetan maila onean iritsi naizela, lan ona eginik aurretik. Ilusioz nago partida irabazi eta finala jokatzeko».

Ligaxkako hiru partidak irabazita sailkatu da Altuna finalerdirako. «Ligaxka ondo joan da. Uste baino errazago sailkatu nintzen, bigarren jardunaldirako sailkatuta nengoelako», esan du. «Ez zitzaidan inoiz gertatu, baina orain hori dena ahaztuta daukat, berriz ere zerotik hasten zait txapelketa. Igandean partida oso zaila dut, eta horretan nago kontzentratuta».

Jakak Peio Etxeberraren aurka jokatu duen partida ez zela ona izan azaldu du: «Txapelketako laugarren partida nuen eta aurreko hiruetan maila hobeagoa eman nuen. Txapelketa guztie-

tan izaten da egun kaxkar bat, eta horrelakoetan irabazteak ere bere meritua du eta alde positibo horrekin geratuko naiz. Ez naiz disgustura egongo galdu izan banu bezala». Larunbatera begira «orain arte bezala jarraitzea» dela kontua dio: «Sentsazio onekin nago, partida onak txarrak baino gehiago egin ditut eta aste honetan aurrekoetan bezala eginen saiatuko naiz».

EZ DAGO AURKARI ERRAZIK

Binaka jokatu izan du Lasoren aurka Altunak, baina banaka oraindik ez. «Aurtengo udan eta Lau eta Erdiko Txapelketan salto handia eman du, maila ikaragarrian dago eta partida zaila dut aurretik». Laso finalerdietan izatea berarentzat ez dela ezustekoa esan du Altunak: «Ni ez nau sorpresaz harrapatu. Unaik dagoe-

neko denbora asko zeraman bere potentziala erakutsiz. Une garrantzitsuetan lehen ez zen hain erasokorra, eta udatik eta txapelketan ikusi dut bere buruan gehiago sinesten duela, oso zentratuta dagoela, eta hori izanez gero, berak dituen ezaugarriekin pilotari handi bat bihurtzen da eta edozeini irabazteko gai da». Txapelketaren aurkezpenean esandakoa ekarri du gogora: «Laso eta Erik ez zituzten faboritoen artean sartzen, baina nik esan nuen biak lasai asko gora iritsi zitezkeela, eta horrela gertatu da».

Larunbateko partidari ez duela ezer galtzeko esan du Jakak. «Txapelketa honetako helburuak aspaldi eta ondo beteta ditut. Hau sari bezala hartzen dut. Horrek ez du esan nahi erlaxatuta aterako naizenik; azkenean

oso aukera polita da eta txapel-dunaren aurka jokatzeko ilusio handia egiten dit. Horrelako partidak jokatzeko entrenatzen naiz hainbeste, eta, beraz, gogoz eta irabaztera aterako naiz».

Partidaren gakoa erritmoa norberak jartzea dela esan du Altunak: «Orain arte ikusi ditudan partida guztietan Laso bera jarri da agintzen, berak jarri du erritmoa. Partida guztietan irabazten hasi da, eta niretzako partida honetan oso garrantzitsua da ondo sartzea».

Bere aldetik, Jakak azaldu du partida bakoitzak erakusten duela zer egin eta nondik jokatu daitekeen. «Partida oso konplikatu da, Joseba pilotari osoa delako», esan du. «Erritmo handia jartzen du frontoian, asko defendatzen du, pilota zail asko eramaten ditu, eta asko sakatzen du. Txapelketa honetan ikusi da ere berari min egitea badagoela, abiadurarekin eta angeluak ondo bilatuz gero. Esperantza badut partida handia egiteko eta gauzak oso zailak jarri eta berari irabazteko».

Altuna eta Jaka lagunak dira eta finalean txapelaren lehian aritu daitezke. «Polita izango litzateke finala elkarren aurka jokatzeko, baina orain ez dut hori buruan», dio Altunak. «Nire helburua finalean egotea da, eta Eriki onena opa diot. Nahiko irekia ikusten dut bere finalerdia». Jakak ere laguna finalera igaro dadin nahi du: «Ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin, entrenamendu asko, eta guretzako oso berezia izango litzateke final batean elkarren aurka jokatzeko».



Aulkitik

Leire Lopetegi

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Emaitza gazi gozoa

Igandean berriz ere Logroñora genuen irteera, goizean goiz Tolosatik abiatu ginen beste erronka bati aurre egiteko gogoarekin. Taldea gogotsu zegoela nabari zen, Imanol eta Iratzen hitzaldia entzun eta berotzera ateratu aurretik, denak animoak ematen aritu ginen. Partida serio hartu

behar genuen, berriz ere aldapa gora ez jartzeko eta hori nabari zen partida aurreko beroketa eta aldagelako momentuan.

Gogotsu hasi ginen baina pauso bat aurrera eman behar genuen: beraiek indarrarekin hasi ziren eta hori geratzeko. Galtzen hasi ginen baina horrek min egin beharrean indartu egin zigun eta

partidaren bila segi genuen, buelta emanez emaitzari atsedenaldira iritsi aurretik. Sentsazio onekin joan ginen eta horrela ateratu ginen bigarren zatian ere.

Partida serioa egiten ari ginen, baina beraiek galtzen ari zirela ikusita taktika aldatu eta aurrera bota zuten taldea eta azkeneko minutuetan gola sartu ziguten

berdinketa lortuz. Ez genuen etsi bukaerara arte. Saiatu ginen baina azkenean sentsazio gazi gozo batekin amaitu zen partida. Hala ere, liga honetan puntu bat lortzea ez da erraza eta hori lortzea lanaren eraginez egiten da. Hor-taz, lanean jarraitu behar dugu eta badakit talde bezala jarraitzen badugu lanean, elkarri lagunduz eta elkarri animatuz, zerbait polita lortuko dugula. Aupa neskak, lanean segi behar dugu eta emaitzak iritsiko dira.



OSTEGUNA, 2019KO URRIAK 31
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baiarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 31

AGENDA

Deialdiak

Irura. Efektu berezien makilaje tailerra 16:30ean, Ludotekan, eta 18:30ean guztiak batera jantziko dira etxetik eramandako trapu zaharrekina- 19:00etan puska-biltzea egingo dute, plazatik abiatuta, eta bukatzeko, 19:30ean gaztain-jatea egingo dute, plazan.

Berastegi. Kultur Astea: 16:30ean baserriko jolasen parkea Kulkiren eskutik, eskola atarian, eta tartean, txokolate jatea; 18:00etan bingoko sari berezia Gaztainondo elkartean; 19:00etan aldaketa klimatua eta glaziarren atzeraldiaren inguruko hitzaldia eta *Incognita Patagonia* filma Ibai Ricoren eskutik.

Baiarain. Udazken Kulturalaren barruan Gau Beltza: 17:00etan gaztetxoek kalabaza tailerrean egindako kalabazak herrian zehar jarriko dituzte; 18:00etan gaztain jatea, plazan, eta ondoren, bakoitzak bere beldurak idatziko ditu papertxoetan eta gaztain jateko sura botako dituzte; herriko argi guztiak itzali eta puska biltzea egingo dute gero, etxex etxe, eta bertan bildutako pintxoak elkarrekin afalduko dituzte haur, gazte eta helduak mozorrotuta daudela; eta 23:00etan beldur ibilbidea.

Lizartza. Gau Beltza: 18:30ean ipuin kontaketa liburutegian; eta ondoren, eskulanak, beldur ibilbidea, gaztaina jatea...

Ibarra. Pettiren kontzertua 19:00etan, Sendi Ekintza elkartean.

Tolosa. 51. Tolosako Abesbatza Lehiaketa 19:30ean, Leidor antzoko

kian. Polifonia eta folklore modalitatean parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia.

Tolosa. Alkoholiko Anonimoen bilera 19:30ean, Corpus Christiko lokalean.

Orexa. Kultur Hamabostaldia: 21:30ean, *Feminismoa Euskal Herrian: egungo gogoetak eta erronkak* hitzaldia, Kizkitza Gil de San Vicerteren eskutik.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena, solasaldia, letren errepublika.

11:00. Eutsi goiari. Kirolak.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

20:00. Goizeko saioen onena.

21:00. Mestibull. DJ Bullekin.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

16:30. Ur eta lur.

17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:00. Urrutiajunbe.

22:30. Hiri baratzea.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. Telefono zenbakia: 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Gaur hasiko da abesbatzen arteko lehia

Indonesiako, Alemaniako eta Suitzako ahotsekin hasiko da gaur, Tolosako Abesbatza Lehiaketa; 'Ataria'-k jarraipena egingo dio

Erredakzioa Tolosa

Gaur hasiko da Tolosako 51. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa. 19:30etik aurrera, Leidor aretoan, polifonia eta folklore sailetan ariko dira Indonesiako Consolatio Choir Universitas Sumatera Utara, Alemaniako Collegium Musicum Berlin Chamber Choir eta Suitzako Männerstimmen Basel taldeak. Aurten ez da Euskal Herriko abesbatzik egongo, izan ere, zaila da urtero bertako taldeak izatea. Galiziatik eta Asturiasetik iritsiko dira gertukoak, Coro Gaos eta Aurum, hurrenez hurren.

Adituen iritzi eta kronikak

TOLOSALDEKO ATARIA-k ere lehiaketa jarraituko du eta horretarako Migel Zeberio Tolosako abesbatza zuzendariaren laguntza izango du.

Zeberio lehiaketako emandien kronikak egingo ditu eta webgunean izango dira irakurgai. Astelehenean bertan Zeberio ikuspuntuaz gain, Irati Hartsuagarena ere izango dugu. Horretaz gain, noski, ATARIA sari



Letoniako Kamer Koris izan zen iazko irabazlea. M.I.

banaketan egongo da eta emailtzen berri emango du igandean bertan, webgunean. Abesbatza Lehiaketak emandakoa ere bilduko dugu astearteko egunkarian.

ATARIA IRRATIAN ere bere lekua izango du Abesbatza Lehiaketa.

tak. Asteartean asteburuan zehar nahiz igandeko sari banaketan izan diren doinueta batak entzun ahalko dira, eta Migel Zeberio abesbatza zuzendariarekin aztertuko du irratia aurtengo lehiaketak emandakoa.



2,2tik 7,8ra bitarteko kontsumo mistoa (L/100km). CO2 isurketak (g/km) 50etik 181era.

VOLVO XC40
BERRIA 27.200 EUROTİK*



GIDATU ZURE BIZI-ESTILOA

Ikusi autosuecia.es webgunean

Auto Suecia | Jauregui auzoa, 76. Hernani (Gipuzkoa) | **943 33 11 31**

#VolvoXC40



* Volvo XC40 Premium Edition D3 Momentum 110 Kw (150 cv) eskuzko auto abiadura aldagailua; penintsularako salneurria (Extremaduran izan ezik) eta Balear uharteetan 35.450 eurotik (BEZ, garraioa, fabrikatzailearen ekarpena, eta Kontzesionarioen Sarea eta matrikulatze zerga barne). Volvo Car Financial Services * markapean finantzaturako unitateen salneurria (Volvo Car Group) Banco Cetelem S.A.U. A-78650348-ren bidez; gutxienez 29.000 euro finantzatzeko. Gutxieneko iraupena, 48 hilabete. Gutxieneko egonaldia, 36 hilabete. S.A.U. Banco Cetelem-en onarpenari lotuta. Eskaintza 2019ko irailaren 30a baino lehen saldutako pertsona fisikoek bakarrik eragiten die. Ikusten den modeloa ez da eskaintzako bera.